



HEZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA IKASTETXEETAKO LANPOSTU HUTSEN PROPOSAMENEI BURUZKO ALEGAZIOAK AURKEZTEA

2025eko abenduaren 17tik urtarrilaren 9ra, egun biak barne, alegazioak aurkeztu ahal izango dira.

Alegazioak online inprimaki baten bidez bakarrik aurkeztu beharko dira.

Alegazioa aurkeztean, formularioan ezarritako testu-eremuaren tamainara egokitzea gomendatzen da (gehienez 2.000 karaktere), Ordezkaritzak eta Sindikatuek hobeto uler dezaten.

Lotura horrekin edozein konexio-arazo izanez gero, CAUrekin kontsultatu beharko da: 945207256.

- **Arabako Ikastetxeen Lurralde Burutza:**

Formulariora esteka honen bidez sar daiteke (Sartzeko XLNET-eko erabiltzailearekin identifikatu beharko da):

[ARABAN LANPOSTU HUTSEN PROPOSAMENEI BURUZKO ALEGAZIOAK AURKEZTEKO FORMULARIOA](#)

Formularioa betetzeari buruzko beste edozein zalantza izanez gero, Arabako Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzako Ikastetxe eta Plangintza Unitatearekin harremanetan jarri beharko da:

- arabalekualdatze@euskadi.eus
- 945017254 / 945017231 / 945017214

- **Bizkaiko Ikastetxeen Lurralde Burutza:**

Formulariora esteka honen bidez sar daiteke (Sartzeko XLNET-eko erabiltzailearekin identifikatu beharko da):

[BIZKAIAN LANPOSTU HUTSEN PROPOSAMENEI BURUZKO ALEGAZIOAK AURKEZTEKO FORMULARIOA](#)

Formularioa betetzeari buruzko beste edozein zalantza izanez gero, Bizkaiko Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzako Ikastetxe eta Plangintza Unitatearekin harremanetan jarri beharko da:

- jm-blazquez@euskadi.eus
- m-lekue@euskadi.eus
- 944031100 / 944031046



- **Gipuzkoako Ikastetxeen Lurralde Burutza:**

Formulariora esteka honen bidez sar daiteke (Sartzeko XLNET-eko erabiltzailearekin identifikatu beharko da):

[GIPUZKOAN LANPOSTU HUTSEN PROPOSAMENEI BURUZKO ALEGAZIOAK AURKEZTEKO FORMULARIOA](#)

Formularioa betetzeari buruzko beste edozein zalantza izanez gero, Gipuzkoako Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzako Ikastetxe eta Plangintza Unitatearekin harremanetan jarri beharko da:

- Edurne Ozaeta e-ozarretausarralde@euskadi.eus 943022855
- Naroa Ayerbe n-ayerbe@euskadi.eus 943022934
- Argiñe Lopez a-lopezpoblacion@euskadi.eus 943022854

DEFINIZIOAK

Ondorengoak dira lanpostu hutsen proposamenetan ageri diren zutabeak:

IKASTETXEKO LPZ: Ikastetxe bakoitzeko LPZn sartutako plazak dira. Lanpostu berezi gisa edo lan-kontratuko langileentzat edo Irakaskuntza Ertaineko Institutu Teknikoetako Irakasleen Kidegoko funtzionarioentzat gordetako plaza gisa definitutako plazak ez dira lekualdatze-lehiaketa honetan eskainiko.

LEHIAKETAKO LANPOSTUAK: Ikastetxeko lanpostuen zerrendan egoteaz gain, Ikastetxe eta Plangintzaren eta Plangintza eta Antolaketako Zuzendaritzan iritziz lekualdatze-lehiaketako plazen eskaintzan sartzeko eskatzen diren irizpideak betetzen dituzte.

ATXIKITAKO IRAKASLEAK: Behin-betiko destinoa ikastetxean duten irakasleak dira eta ikastetxe horretako lanpostu bati daude atxikita, nahiz eta praktikan ikastetxean bertan egon eskolak ematen edo, beharbada, beste tokiren batean.

LEKUZ ALDARAZITAKO IRAKASLEAK: Lekuz aldaraziaren izaera duten irakasleak dira, baina lanpostu bat betetzeko eskubidea dute, aukera hori sortzen den unean.

GORDETAKO LANPOSTUAK: Aurreko bi zutabeetako egoerak batzearen ondorioa da. Atxikitako irakasleak eta lekuz aldarazitakoak batuz gero, lanpostua guztira zenbat irakasleri gorde beharko zaien jakingo dugu.

LEKUALDATZE LEHIAKETAKO LANPOSTU HUTSAK: “Lehiaketako lanpostuak” eta “Gordetako lanpostuak” zutabeen arteko kenketa da. Kenketaren emaitza positiboa bada, lekualdatze-lehiaketan eskainiko diren lanpostu hutsak lortuko dira.

ESTALITAKO BIGARREN ALDIKOAK: “Lehiaketako lanpostuak” eta “Gordetako lanpostuak” zutabeen arteko kenketa da. Kenketaren emaitza negatiboa bada, lekualdatze-lehiaketan estali beharreko lanpostuak zeintzuk diren jakingo dugu, hau da, lanpostu horiek, nahiz eta ikastetxeko irakasle bat lekuz aldatu, ez dira lanpostu huts bezala eskainiko, espezialitate eta hizkuntza-eskakizun horretako beste irakasle batentzat gorde beharko baitira, atxikitakoa edo lekuz aldarazitakoa.